

bbk

UDALEKUAK 2020

BBK Urdaibai zentroa (lehenago Sukarrietako udalekua) duela ia 100 urte sortu zen, eta beti izan da aitzindari proiektu berritzaileak garatzen: 1925ean, erietxea; 1965ean, oinarritzko hezkuntza sartu zuen; 1982an eta 1983an, ingurumen-hezkuntzako programa eta udalekuak; 1995ean, Urdaibaiko asteburuak; eta 2015ean, eskola-jazarpenaren aurkako programa. Orain, 2019an, mende honetako erronka eta behar berrietara egokitu eta **BBK Urdaibai: Aldaketaren zentroa** bilakatu da, klima-aldaketaren aurka borrokatu eta iraunkortasun edo jasangarritasunaren alde lan egiteko.

Mundu mailan klima-aldaketaren aurka borrokatzeko **Parisko Akordioa** onartzeak 2015ean, Nazio Batuen **Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH)** ezartzeak eta dagoeneko agerikoa den larrialdi klimatikoak proiektu integratu berri bat sortzera eroan dute BBK, eta lehen fasean **BBK Udalekuak** programaren formatu berria aurkeztuz hasiko da.

37. edizioan, 2020an, BBK Udalekuak bere jarduerak birbideratuko ditu ingurumen-osagaiarekin (eta, bereziki, klima-aldaketarekin) lotutako GIHak bere ardatz egituratzaile bihurtzeko. Era berean, komunikaziorako hizkuntzak **euskara** eta **ingeleza** izango dira, ingurugiro eta jasangarritasunarekin loturako jarduerak **ingelesez** egingo direlako. Seigarren txandan gaztelania ere bermatuko da.

Jarduerak hiru programaren inguruan antolatuko dira:

1 KLIMA ALDAKETA OROKOR

bertan, jolas aktiboan, komikien eta beste jarduerak ludiko-artistiko batzuen bidez klima-aldaketaren kontzeptuak landuko dira, espero diren eragin edo inpaktuak, baita horrek naturan eta gure bizimoduan dituen ondorioak ere;

2 CO MURRIZTEN

gauza bera egingo da energia, mugikortasun eta horiek klima-aldaketarekin duten loturarekin, tailer, jarduerak fisiko (bela, bizikleta-ibilaldi, ...) eta eskulanean bidez;

3 NATURA ETA KLIMA

natura, izadia babesteak duen garrantziaren inguruan lan egiteko, klima-aldaketaren aurka borrokatzeko eta "erresilientzia" (klima-aldaketaren eraginetara egokitzeko, edo horietatik suspertzeko, gure gaitasuna) areagotzeko modu adimentsu gisa, uretako jardueren edo gaikako txangoen bidez.

IZEN EMOTEA ETA ESLEIPENA

- MARTXOAK 2-31** | **Izen-ematea** BBKetaZU atarian (<https://bbkytu.bbk.eus/>) egingo da. Izen-ematea banakakoa izango da.
- APIRILAK 27** | Plazen **esleipena** apirilaren 27tik aurrera bidaliko da eskarian adierazitako helbide elektronikora. BBKetaZU atarian ere ikusteko aukera izango duzu.
- MAIATZAK 31** | **(1) Esleitutako plaza nahitaez onetsi beharko da** maiatzaren 31 baino lehen eskarian adierazitako helbide elektronikora bidaliko den estekaren bidez edo BBKetaZU atarian. **Plaza ez bada aipatutako epean onesten plazari uko egin diozula ulertuko da.**
(2) Onetsitako plazari uko egin behar izanez gero udalekuak@bbk.eus helbidera idatzi beharko da maiatzaren 31 baino lehen.
- EKAINAK 1** | Ekainak 1etik aurrera **justifikatu gabeko uko egiteak** zenbatekoaren %20a ordaintzea ekarriko du.

TXANDAK

Egonaldia 6 egunekoak izango da, astelehenetik larunbatera.

- 1. TXANDA** | Ekainaren 22tik 27ra
EUSKERA ETA INGELESA
- 2. TXANDA** | Ekainaren 29tik Uztailaren 4ra
EUSKERA ETA INGELESA
- 3. TXANDA** | Uztailaren 6tik 11ra
EUSKERA ETA INGELESA
- 4. TXANDA** | Uztailaren 13tik 18ra
EUSKERA ETA INGELESA
- 5. TXANDA** | Uztailaren 20tik 25era
EUSKERA ETA INGELESA
- 6. TXANDA** | Uztailaren 27tik Abuztuaren 1era
EUSKERA GAZTELANIA ETA INGELESA
- 7. TXANDA** | Abuztuaren 3tik 8ra
EUSKERA ETA INGELESA

KONTAKTUA

Eskaera honen inguruko edozein gorabeheratarako, deitu 94 423 23 23 telefonora astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:00etara.

Egonaldiari buruzko edozein gorabeheratarako idatzi udalekuak@bbk.eus helbidera edo deitu telefono hauetara: 94 687 07 10 / 94 685 94 03.

Helbidea: BBK Udalekuak, BBK Urdaibai zentroa, Abiña auzoa z/g, 48350 Busturia, Bizkaia

NORI ZUZENDUA

2007 eta 2013 bitartean jaiok, biak barne.

BALDINTZA

Kutxabanken Gaztedi/A Plan/Kontu aktibo baten titularra izatea (kuotek etenik ez izatea) eta ordainketa Gaztedi/A Plan/Kontu aktiboari lotutako Kutxabank kontutik egitea.

ZENBATEKOA

Egonaldiaren zenbatekoa 190 eurokoa da. Kargua **ekainean** egingo da.

GARRAIOA

Egonaldia astelehenean hasiko da eta aukera bi daude umea(k) ekartzeko:








- 1. AUKERA** | 9:00 | Bilbao Intermodal Geltokian
BBK antolatutako autobusez. Autobusa 9.30etan irtengo da BBK Urdaibai Zentrorantz.
- 2. AUKERA** | 10:00 | BBK Urdaibai Zentroan
Garraioa norberaren kontura.

Egonaldia larunbatean amaituko da eta aukera bi daude umea(k) batzeko:

- 1. AUKERA** | 16:00 | BBK Urdaibai Zentroan
Umeekin batera berau ezagutzeko aukera izanik. Garraioa norberaren kontura.
- 2. AUKERA** | 18:00 | Bilbao Intermodal Geltokian
BBK antolatutako autobusez.

EGONALDIRAKO BEHAR DEN EKIPAMENDUA






ARROPA EROSOA EGONALDI OSORAKO (6 EGUN):

-  Kamisetak
-  Sudadera
-  Barruko arropa
-  Galtzerdiak
-  Kiroletarako oinetakoak
-  Prakak eta/edo gonak
-  Anoraka

NORBERAREN GARBITASUNERAKO GAUZAK:

-  Hortzetako eskuila eta hortzorea
-  Mukizapiak
-  Orrazia

BESTELAKOAK:

-  Pijama
-  Ur-kiroletarako kamiseta edo elastiko bat
-  Eguzki-krema
-  Dutarako txankletak
-  Igerilekurako eskuoihala
-  Ur-kiroletarako egokiak diren sandaliak
-  Bainujantzia

GARRANTZITSUA

Umeak egonaldi guztirako arropa nahikoa ekarri behar du. Ume bakoitzeko maleta bakar bat. Maletak eta arropa guztiek umearen izena eta zenbakia idatzita eduki behar dute. Ez da dutarako eskuoihalik, lo sakurik ezta izararik ekarri behar. Ezin da baliozko gauzarik, dirurik, mugikorrik, musika-erreprouziztailerik ezta gozokirik ekarri.

BLOGA

BBK Udalekuak Bloga egonaldia hasten danean jarriko da martxan eta bertan eguneroko umeen argazkiak ikusi ahal izango dira (abuztuaren 31ra arte). Blogaren sarbidea BBKetaZU atarian egongo da (ezkerraldeko beheko aldean) eta eskaria egiterakoan erabilitako erabiltzailearekin sartzeari buruzkoak izango da.